

zein Hearstek –bere izen-abizen propioekin agertzen da nobelari–. Baina Etxe Zurirako bidean aurkariak ere irabaziko ditu presidentegiak, haien artean Doremus Jessup New Englandeko kazetaria. Ikuspegi sozialistekiko jarrera irekia duen «herri txiki bateko intelektuala» bezala deskribatzen zaigu Jessup, bere arraza eta klase soziala dela eta presidentegiaren alde bozkatu duenen amorrua ulertzeko gai ez dena. Hala ere, bera ere txundituta geratuko da Windripen erretorikarako dohainarekin Madison Square Gardenen egindako agerraldi baten ostean. Handik ordu batzuetara kazetaria ez da presidentegiak esandako hitz bakar bat gogoratzeko gai izango, baina ez du axola. Windrip kontraesanetan erortzen bada, atzera egingo du esandakoan edo besterik gabe gezur mordoa esango ditu bere burua zuzitzeko.

Hauteskundeak irabazi eta berehala lanean hasiko da Windrip: gerra legea ezarriko du lehenik, bere aurkari politikoen tzaiko kontzentrazio esparruak eraikitzen hasi ondoren –horren ondorioz milaka estatubatuar Kanadarako muga zeharkatzen saiatuko dira–, eta Mexikoren inbasioa agindu jarraian. Komunismoaren arerio izateko, Stalinen metodoen jarraitzaile fin bihurtuko da presidente hautatu berria.

Komunikabideen rola

Lan egiten duen egunkaria propaganda aparailu bihurtu ostean, Jessupe Windripen agintearen kontra erresistentzia talde klandestino bati lotuko zaio. Komunikabideek Windripen aginteari aurre egiten joka dezaketen rol erabakiorraz jakitun, prentsa askatasuna berrezartzea da bere helburuetako bat. Nobelak berak, hain zuen, kazetaritza, Windripen jarraitzaileek faltan duten hezkuntza zibikoarekin batera, demokraziaren oinarriko zutabe bezala azaltzen du. Boterearen aurrean irizpide kritiko agertzen duen komunikabiderik eta hezkuntza zibikorik gabe, Windripen bezalakoek erraz manipula dezakete jendea baita AEBetan ere. Azken hori ez dago faxismotik libre, luzaro ueste izan den moduan, eta, faxismoa gailendu bada, apatia kolektiboa, errotoik ezjakintasuna, hots, demokrazia parte hartzaileak eskatzen duen pentsamendu kritikorako ahalmena jadanik ez duen herritar eredia nagusituko delako gailendu da.

Franco hiltzen

Alex Gurrutxaga

Indar sinboliko handia daukaten ekintzak daude Koldo Izagirreraren azken lanaren oinarrian. Diktadorea 1975eko azaroaren 20ak igorri zuen hobira, baina, lehendik, hainbat gertakizunek kolpatu zuten. Gertaera sinbolikoak izan ziren –poetikoak, Izagirreraren pertsonaia batek esaten duen bezala–, heroikoak euren txikian, eta Franco sinbolikoki akabatuz joan ziren –beste gertaera sinboliko eta ez hain sinboliko batzuek hura enbalsamatu mantentzen lagundu nahi lukeuten bezala–.

Garai eta giro bertsuko bederatzirako narrazioa, guztiak ere diktaduraren azken urteetara eramango gaituztenak. Alde horretatik, narrazio liburu trinkoa da *Franco hil zuten egunak*. Gainera, hainbat pertsonaia narrazio batean baino gehiagotan aurkituko ditugu, eta horrek ere liburuaren paisaia tapitua egiten du.

Gertakari konkretuei dagokionez, ordea, askotarikoak dira narrazioak: *Paperak*, adibidez, Joseba Elosegik 1970ean egindako bontzo jauzi ezagunaz ari da, eta baita hark idatzitako *Quiero morir por algo* liburuaz ere; *Une baten argazkia* fotografiari egindako omenaldia da, eta Paulino Uzkudunen balentriak eta juku-



'Franco hil zuten egunak'

Egilea: Koldo Izagirre.
Argitaletxea: Susa.

X. Etxepare saria



Imanol Mercero

Formatu honetan ohiko den bezala, orrialde bikoak hartzen dituzten hamabost irudi handitan kontatzen da istorioa, testua irudien gainean han-hemen ezarrita.

Testua ardatz duten irudidun narrazioen kontrara, albumetan testuak nabarmendu edota azpimarratu egiten du irudietan kontatzen dena, eta bien osagarritasuna oreka horretan ematen da.

Istoria bi haurren arteko topaketa da, herri bakartu bateko kale hutsetan. Ez dute elkar ezagutzen, baina jolasgurak hurbiltzeraz bultzatzen ditu. Bata neska toa da, bestea mutikoa. Aurreiritziek neskatoa gutxiesten eragiten diote mutikoari, baina laster ohartuko da zein oker dauden...
Anekdotak domestiko baten

jantziarekin aldarrikapen berdinzalea eskaintzen digu obra honek, haurrak ekinean jarriz, eta irakurleari aukera emanez bere ondorioak atera ditzan.

Ilustrazio lana ere saiatzen da ekarpena egiten, estetika elurtuarekin esperimentuak eginez, edota erretorika baliabideak sinboloen bidez agertuz, hala nola *denbora oharkabean igarotzea* area erlojuarekin adierazten duenean.



'Zerua gris dago'

Idazlea: Isak Martinez.
Ilustratzailea: Liebana Goñi.
Argitaletxea: Pamiela album ilustratuen Etxepare saria, 2016ko edizioan.

triak, eta migrazioak gurean izan duen presentzia agertzen ditu; futbolak ere toki dezente hartzen du liburuan, eta hainbat dira jokalariak egindako ekintza sinbolikoak; *O burro*-n, memoria historikoa agertzen da, Ferrolen zegoen Francoren irudi erraldoiari lotua...

Gertakizunak askotarikoak izanik, beste horrenbeste esan daiteke kontateknikei buruz ere. Ezin ditugu narrazio guztiak jorratu, eta aipa ditzagun pare bat bederen, gaien mamitsua eta kontamoldeen aberatsa nabarmentzeko. *Larbi* narrazioak Saharara eramango du irakurlea, «martxa berde» deitu zuten 75eko narrikeria hartara eta Fronte Polisarioaren borrokara. Espiralaren moduko kontakizunetan, presoaren eta okupatzaileen arteko ikuspegiak nahasten dira. Interesgarria da ohartzea euskaldunak okupatzaileen bantuan aplikatu direla; eta oso ongi islatzen dira, halaber, preso sahararraren ikuspegi eta deskonfiantza. Pertsonaien karakterizazioari dagokionez, Izagirre hizkera ezberdinekin jolasten da, narrazioaren errealismoa eta kolorea areagotuz. Bestalde,

Irauntza narrazioak Garmendia eta Otaegiren fusilamenduen ondorengo protestak dakartzatza, eta bereziki J. M. Garcia Ripaldaren hilketa, 75eko abuztu bukaran. Kontakizuna barne-bakarritzeta bezala emana dago, eta Kafkaren itxuraldaketaen istorioarekin jolasten da. Kasu honetan argi ikus daiteke egileak detaile txikiak nola josten dituen –karamelok, Minia, *¡gazanpí-ro!*...–, birsortzen duen mundua indartuz.

Jario biziko narrazioak dira guztiak, azkarrak irakurrian, baina ez horregatik mamirik gabek. Izatekotan, justu kontrakoak: arreta handia eskatzen dute, informazio dentsitate handikoak eta oso kondentsatuak baitira, eta, apika hau esatea politikoki zuzena ez bada ere, ezinbestekoa ematen du irakurlea jakintza historiko eta kultural gutxienekoa baino zerbait gehiagoren jabe izateak. Azkenik, estiloak eta hizkuntzak ere Izagirreraren marka berezia dute.

Askotarikoak eta konplexuak dira Franco sinbolikoki hil zuten egunak, eta horien lanketa literario ona eta mamitsua dago narrazioan.

Lazarillo 2015 saria



Imanol Mercero

Dozena bat irudi etzan eskaintzen ditu, eskuineko orrialdeetan, ezkerreko orrialdeetan, bospaseina esaldi erdian zentratuta.

Nabarmena da testuaren eta irudien arteko desoreka, informazioaren kudeaketari dagokionez. Testuak daruma kontaketa ren harria, eta irudiek «tonua» ezartzen laguntzen dute, zehaztuz batzuk egiten laguntzearekin batera.

Martinen lagun anonimo bat da narrazioa, eta bere laguna nolakoa den eta beragatik zer sentitzen duen kontatzen digu.

Azalpena Martinen berezitasunean zentratzen da, ezen Martin «berezia» baita –patologia psikologikoren bat dauka; autismoa?–, eta gizarteratzeko arazoa baititu.

Emaitza paternalismoz betetako narrazio baten begirada da, Martinen berezitasunekin obsesionatuta dagoena, desoreka zantzuak erakusten dituen, eta, ondorioz, Martingana hurbildu baino gehiago urrutirarazi egin nauena. Justu kontaketa beharko zutenaren kontrakoa, nire ustez, helburua Martin bezalakoengana hurbiltzea baldin bada.



'Martin'

Idazlea: Maite Gurrutxaga.
Argitaletxea: Elkar.
OEPLI erakundeak antolatzen duen Lazarillo sariaren txapeldua, album ilustratu atalean, 2015eko edizioan.